

Esp. Zkia.- KE-2024-011

E.E.- 2024-00147

**197/2024 ALKATETZA DEKRETUA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2024ko martiaren 25ean.

OINARRIA: 2024ko zezeilaren 6an BAOean 2024 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko Baserritar eta Kontsumitzaileen Elkarlanerako Gurgide Elkarteren, G-95587507 IFK zenbakidunaren, aldeko diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu-partida konkretuan (1623-48001). Hau horrela elkarteak 2024ko martiaren 6an udal sarrera erregistroan E202400949 inskripzio zenbakiarekin dirulaguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2024ko martiaren 25eko datarekin udal kontu-hartzaileak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

**LEHENENGOA.-** Larrabetzuko Baserritar eta Kontsumitzaileen Elkarlanerako Gurgide Elkarteari (IFK: G-95587507); 44.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako (eskatutakoaren %92,24), 1623-48001 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta.

**BIGARRENA.-** 10 laneguneko epea eman aipatutako elkarteari 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. artikuluan adierazitako betekizunak jasotzen dituen hitzarmena sinatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Sinatuko den hitzarmena oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Amaia Lekue Mezo  
Alkatea

Nire aurrean,  
Idazkaria